

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

# OHIKO GALDEREN ERANTZUNAK

Koronabirusari aurre egiteko neurri zehatzak

2021eko urriaren 7an eguneratutako dokumentua

*Euskadi, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



## Aurkezpena

Dokumentu honek, ohiko galderen erantzunen zerrenda baten bidez, honako hauen edukia hobeto ulertzen eta interpretatzen lagundu nahi du:

·39/2021 Dekretua, urriaren 6koa, lehendakariarena, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdiko egoera Euskadin amaitu dela adierazten duena eta normaltasun berri batean sartzeko neurriak zehazten dituena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105124e.pdf>

·Agindua, 2021eko urriaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berrian COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105125e.pdf>

Dokumentu hau interpretatzailea baino ez da, eta ez du inola ere ordeztzen dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako dekretuaren edukia.

Herritarren zalantzak, orain arte egin den bezala, ZUZENEAN herritarrentzako zerbitzuaren bidez bideratuko dira:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/zuzenean-herritarrentzako-zerbitzua/>



## OSASUN-LARRIALDIAREN AMAIERA

### 1. Zer esan nahi du osasun-larrialdiko egoeraren deklarazioari amaiera emateak?

Horrek esan nahi du pandemiaren bilakaerak eta, batez ere, ospitaleetan eta ZIUetan duen eraginak kritikoa izateari uzten diola eta, beraz, gizarte-jardueren funtzionamendu normalizatuago batera itzul daitekeela. Horrela, osasun-larrialdiko egoera batetik osasun-zaintzako egoera batera pasatzen gara.

### 2. Zer datuk azaltzen dute osasun-larrialditik osasun-zaintzara pasatzea?

Bizi Berri IV Planaren 1. mailan ezarritako helburuak lortu dira, osasun-larrialdiari amaiera emateko eta ordutegiak, edukiera eta jardueren egitura mugatzeko neurriak altxatzeko. Zehazki: 40 ohe baino gutxiagoko ZIUko okupazioa; 60 ohe inguruko intzidentzia-tasa eta beheranzko joera pixkanaka; eta %90eko txertaketa pautaren osoarekin.

### 3. Osasun-krisi hau gainditu eta amaitutzat jo dezakegu?

Ez. Zalantzarik gabe, egoerak hobera egin du, baina horrek ez ditu erabat desagerrarazten ezkutuko ziurgabetasunak eta mehatxuak, hiru puntutan kontzentratzen direnak: birusaren aurreikusezintasuna, mutazio-gaitasun handia duelako; txerto-defizita planetako eremu zabaletan; eta immunitate naturalak edo txertoak irauten duen ziurgabetasuna.

### 4. Zer neurrik jarraitzen dute indarrean?

Osasuneko sailburuaren aginduaren bidez, Osasuneko Lurralde arteko Kontseiluaren esparruan lotzen gaituzten neurri hauek mantentzen dira:

-Maskara nahitaez erabili beharra (ikus aurrerago).

-Edukiera ehuneko 80ra mugatzea 5.000 pertsonatik gorako edukiera duten esparru itxietan.

-Ekitaldietan elikagaiak eta edariak hartzeko debekua, ura izan ezik, barruko zein kanpoko esparruetan. Ostalaritzarako eta jatetxeetarako guneeetan bakarrik kontsumitu ahal izango da.

### 5. Zer neurri geratzen dira ondoriorik gabe?

Eraginik gabe geratzen dira ordutegia, edukiera eta jardueren egituraketa mugatzen dituzten gainerako neurriak

## EGOERA BERRIA

### 6. Ba al dago jarduerak eta establezimenduak ixteko ordu-mugarik?

Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduerak ixteko eta irekitzeko ordutegia arlo horretan aplikatu beharreko ordutegiaren ohiko erregulaziora egokituko da.



### **7. Establezimendu, ostalaritza edo saltokietan edukiera-mugaren bat dago?**

Lokal eta instalazio guztietarako baimendutako gehieneko edukiera edukieraren ehuneko 100ean berrezarri da.

Lokal eta instalazio guztietan arreta berezia jarri beharko da instalazioetara sartzeko eta instalazioak uzteko protokoloetan, batez ere edukiera handienekoetan.

Nolanahi ere, pertsonen arteko distantziak mantentzea eta jende-pilaketak saihestea gomendatzen da.

### **8. Derrigorrezkoa al da lokalen aireztapena?**

Bai. Lokal eta instalazio guztiak etengabe aireztatu beharko dira.

### **9. Ba al dago mugarik ostalaritzako mahaietan pertsonak taldekatzeko? Barran edo zutik kontsumitu daiteke? Dantzatu daiteke?**

Ostalaritzari eragiten dioten neurriak etengabeko aireztapena eta maskara erabiltzea dira. Nahitaez erabili behar dira beti, bai barrualdeetan, bai terrazetan. Gainerako neurriak indarrrik gabe geratu dira.

### **10. Ba al dago neurri espezifikorik joko-establezimenduetarako, txokoetarako eta elkarte gastronomikoetarako?**

Ostalaritzan bezala, baimendutako gehieneko edukiera edukieraren ehuneko 100ean berrezartzen da, eta etengabe aireztatu eta maskara erabili beharra zehazten da. Gainerako neurriak indarrrik gabe geratu dira.

### **11. Ireki al ditzakete lonjak, gazte-lokalak eta antzekoak? Zein baldintzatan?**

Lonjak, gazteentzako lokalak eta antzekoak berriro irekitzea baimentzen da, gainerako establezimenduetako baldintza berberetan. Bereziki, aireztapen etengabea eta maskararen erabilera

### **12. Eta diskoteken eta gaueko aisialdiko establezimenduen kasuan?**

Era berean, edukieraren %100 baimentzen da, eta gogorarazten da maskara erabiltzea nahitaezkoa dela uneoro, elikagaiak eta edariak hartzeko unean izan ezik.

### **13. Edukiera-mugarik ba al dago gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldietan?**

Esparru irekietan egiten diren gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldiak edukieraren %100eko edukierarekin gara daitezke. 5.000 pertsonatik gorako edukiera duten esparru itxietan egiten diren ekitaldietan, gehieneko edukiera %80 izango da.



#### **14. Ekitaldien garapenean edariak edo janariak kontsumitu al daitezke?**

Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluaren erabakiak ezartzen duenez, ura izan ezik, ezin izango da janaririk eta edaririk kontsumitu ekitaldietan, barrualdea edo kanpoaldea bereizi gabe. Osasuneko Sailburuaren Aginduak adierazten du elikagaiak eta edariak ostalaritzarako eta jatetxerako guneetan saldu eta kontsumitu ahal izango direla, esparru beretan.

#### **15. Zer beste baldintza errespetatu behar dituzte gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldiek?**

Era guztietako gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldiak antolatzean, bai eta erabilera publikoko establezimenduetan eta lekuetan egiten diren jardueren multzoan ere, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezartzen dituen gidaleroak eta gidak errespetatu beharko dira, bai jarduera bera garatzeko, bai jendearen egonaldia eta laguntza antolatzeko, COVID-19 transmititzeko arriskua saihesteko baldintzetan. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak aldi-aldi eguneratuko ditu jarraibide eta gida horiek, bilakaera epidemiologikoaren arabera.

Nolanahi ere, ekitaldiak egiten diren bitartean, ez da baimenduko janaririk eta edaririk kontsumitzea, ez barruko esparruetan, ez kanpokoetan, ura izan ezik. Elikagaiak eta edariak ostalaritzarako eta jatetxerako guneetan soilik saldu eta kontsumitu ahal izango dira.

### **MASKARAREN ERABILPENARI BURUZKOA**

#### **16. Noiz da derrigorrezkoa maskara erabiltzea?**

Sei urtetik gorako pertsonak nahitaez erabili beharko dute maskara, erabilera publikoko edozein gune itxitan edo jendearentzat irekita dagoen edozein gunetan.

Aire zabaleko guneetan nahitaez erabili beharko dira, baldin eta ezinezkoa bada pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko distantzia etengabe mantentzea, elkarrekin bizi diren pertsona-taldeen kasuan izan ezik. Ondorioz, maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da pilaketak izaten dituzten hiri-ingurune guztietan.

Ingurune naturalean ez da maskararik erabili beharko, betiere pilaketarik edo metaketarik ez badago elkarrekin bizi ez diren beste pertsona batzuekin.

Era berean, aplikatzekoak izango dira maskarak ez erabiltzeko arrazoiak eta kasuak, betiere 13/2021 Errege Lege Dekretuaren lehenengo artikulua aldarazitako 2/2021 Legearen 6. artikuluan legez aurreikusitako eran. Kasu horietan, norbaiti eskatzen zaionean egiaztatu dezala maskara erabiltzetik salbuetsita dagoela, desgaitasun- edo mendekotasun-maila adierazten duen agiri baten bidez dokumentatu beharko du egoera hori, edo, bestela, horretarako egindako mediku-ziurtagiri baten bidez.

#### **17. Nahitaezkoa al da ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduetan, txoko, joko-areto edo lonjetan, maskara erabiltzea?**



Bai. Ostalaritzako establezimendu eta zerbitzuetan, bai eta jatetxeetan ere, maskara erabiltzeko derrigortasuna une jakin batean etengo da soilik: elikagaiak edo edariak hartzeko unean, hain zuzen ere. Bestela, beti erabili behar da, bai barrualdeetan, bai terrazetan.

Lehen esan bezala, maskara nahitaez erabili beharra joko-establezimenduei, txokoei eta elkarte gastronomikoei, lonjei, gazte-lokalei eta antzekoei, diskotekei eta gaueko aisialdiko establezimenduei aplikatu dakiekeen neurria da.

### **18. Kendu dezaket maskara kirola egiten dudanean?**

Edozein kirol-jardueratan, ez da maskara erabili beharko espazio naturaletan, oinezkorik gabeko hiri-ingurune periferikoetan, igerilekuetan bainua hartzerakoan, taldeen arteko kirol-lehiaketetan (entrenamenduak barne) eta kanpoko jarduera fisiko biziko ezohiko uneetan.

Gainerako kirol-jardueretan (makina-aretoetako jarduerak, programatutako jarduerak, ikastaroak, etab.), kiroldegietan edo gimnasioetan egiten badira, derrigorrezkoa da maskara erabiltzea.

### **19. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea garraioa erabiltzen denean?**

Nahitaezkoa eta ezinbestekoa da 6 urtetik gorakoek maskarak erabiltzea edozein garraibide hartzen dutenean; hain zuzen ere, bidaiaren hasieratik bidaia amaitu arteko tarte osoan, legezko salbuespen-kasuetan izan ezik. Garraio pribatuan, ez da beharrezkoa izango maskarak erabiltzea, baldin eta bidaiariak elkarrekin bizi badira etxebizitza berean. Garraioaren arloko profesionalak ere maskara eraman beharko dute zerbitzuak irauten duen bitartean, baldin eta jendearengandik bereizitako lanleku propiorik edo babes-manpara baten bidez bereizitako lekurik ez badute.

## **OSASUN-ERANTZUKIZUNEN BETEBEHARREI BURUZKOA**

### **20. Zer prebentzio-jarrera izan behar ditut?**

Maskara erabiltzeaz gain, barrualdeen etengabeko aireztapena, pertsonen arteko distantzia eta eskuen higieena. Aglomerazioak saihestea, txertaketan parte hartzea, kasuak arakatzeko laguntzea eta berrogeialdiak eta isolamenduak betetzea.

### **21. Behartuta al nago kutsadurak arakatzeko eta horien trazabilitatea egiten laguntzera?**

Bai. Kutsatutako pertsonen eta haiekin harremana izan dutenek derrigorrez kolaboratu behar dute COVID-19 Kasuak eta Kontaktuak Zaintzeko EAEko Sarearen bilaketa- eta trazabilitate-lanetan. Hori dela eta, herritarrei eskatzen zaie zehaztasunez erantzuteko jarraipenaren arduradunek egiten dizkieten deiei, eta eskatzen zaien informazio guztia ahalik eta azkarren eta egiazkotasunez emateko.

Pertsona guztiak bete beharko dituzte agintarien edo osasun-zerbitzuen jarraibideak, bai eta Osasun Sailarenak ere, indarrean dauden protokoloen arabera.



## **22. Derrigor konfinatu behar al dut neure burua agerraldi epidemiko baten eraginpean egonez gero?**

Bai. COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, epidemia-agerraldiek kaltetutako pertsonak konfinatzeko betebeharrak bete behar dira, eta, horren ondorioz, isolamendu-betebeharrak zorrotz bete behar dira, beste pertsona batzuekin lekualdatzeko edo aurrez aurre erlazionatzeko aukerarik gabe, bai eta berrogeialdiak betetzeko kutsatu izanaren susmoa duten beste pertsona edo pertsona-talde guztiei dagokienez. Horiek guztiek osasun-agintarien edo -zerbitzuen jarraibideak bete behar dira, indarrean dauden protokoloen eta kasu bakoitzaren egoera zehatzaren arabera.

### **INFORMAZIO GEHIAGO**

#### **23. Non aurkitu dezaket informazio gehiago?**

•Jarduera desberdinetarako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo esteka honetara:

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-protokoloak/web01-a2korona/eu/>

## Urriaren 7tik aurrera indarrean dauden neurriak

## Medidas en vigor desde el 7 de octubre

**Osasun-larrialdia.** Bilakaera epidemiologiko positiboari esker, Lehendakariaren Dekretu bidez amaitsu da Osasun Larrialdia. Hala ere, osasun-krisis ez da amaituzat eman behar. Beharrezkoa da prebentzio-jarrera zibikoa izatea.



**Emergencia Sanitaria.** La positiva evolución epidemiológica ha permitido poner fin a la Emergencia Sanitaria mediante Decreto del Lehendakari. No obstante, no se debe dar por finalizada la crisis sanitaria. Es necesario mantener una actitud cívica de prevención.

**Indarrean dauden neurriak.** Osasun Sailburuaren agindu baten bidez, maskarak nahitaez erabili behar dira, edukiera %80koa izango da 5.000 pertsonatik gorako esparru itxietan, eta debekatuta dago jatea edo edatea ekitaldietan barruan zein kanpoaldean.



**Medidas en vigor.** Mediante Orden de la Consejera de Salud, se mantiene la obligatoriedad del uso de mascarillas, la limitación de 80% de aforo en recintos cerrados con capacidad superior a 5.000 personas y la prohibición de ingerir alimentos o bebidas en eventos ya sea en interiores o en exteriores.

**Prebentzio-protokoloak.** Gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldi guztietan eta erabilera publikoko establezimenduetan, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezartzen dituen Jarraibideak eta Gidak errespetatu beharko dira.



**Protocolos preventivos.** En todo tipo de eventos sociales, culturales o deportivos, y en establecimientos de uso público se deberán respetar las Directrices y Guías que establece la Dirección de Salud Pública y Adicciones.

**Ondoriorik gabeko neurriak.** Ondoriorik gabe geratzen dira ordutegiak, edukierak edo jardueren egituraketa mugatzen zuten gainerako neurriak.



**Medidas que quedan sin efecto.** Quedan sin efecto el resto de medidas limitativas de horarios, aforos o estructuración de actividades.

### Noiz den nahitaezkoa maskara erabiltzea.

Espazio itxiak. Nahitaezkoa da erabilera publikoko edozein espazio itxitan, esate baterako, merkataritza.

Aire zabalean. Jakina, edozein aglomerazioan eta pertsonen arteko distantzia mantentzea ezinezkoa denean.

Ostalaritzan. Taberna eta jatetxeetan, diskoteketan, txokotan edo gazteen lonjetan, maskara erabiltzea nahitaezkoa da, irensten den unean izan ezik, bai barrualdean, bai terrazetan.

Kirola. Ez da nahitaezkoa naturaguneetan, hiri-inguruneetan oinezkorik ez dagoenean, taldeen arteko kirol-lehiaketetan (entrenamenduak barne) eta kanpoko jarduera fisiko biziko aparteko uneetan. Barruko gainerako kirol-jardueretan nahitaez erabili behar dira.

Garraioa. Nahitaezkoa eta ezinbestekoa da 6 urtetik gorakoentzako maskarak erabiltzea bidaiarien edozein garraio bide erabiltzean.



### Cuándo es obligatorio el uso de mascarilla.

Espacios cerrados. Es obligatorio en cualquier espacio cerrado de uso público como, por ejemplo, el comercio.

Al aire libre. Lógicamente, en cualquier aglomeración y siempre que no resulte posible mantener la distancia interpersonal.

En hostelería. Tanto en bares y restaurantes como en discotecas, txokos o lonjas juveniles, el uso de mascarilla es obligatorio salvo en el momento de la ingesta, tanto en interiores como en terrazas.

Deporte. No es obligatoria en espacios naturales, en entornos urbanos sin concurrencia de viandantes, en competiciones deportivas entre equipos (incluidos entrenamientos) y en los momentos extraordinarios de actividad física intensa en exteriores. En el resto de actividades deportivas en interiores su uso es obligatorio.

Transporte. Es obligatorio e imprescindible el uso de las mascarillas para mayores de 6 años al utilizar cualquiera de los medios de transporte de viajeros.

### Mantendu beharreko prebentzio-jarrerak.

Maskara erabiltzea, barrualdeak etengabe aireztatzea, pertsonen arteko distantzia eta eskuen higieena. Jende pilaketak saihestea, txertaketan parte hartzea, kasuen miaketan laguntzea eta berrogeialdiak eta isolamenduak betetzea.



### Actitudes preventivas que deben mantenerse.

Además del uso de mascarilla, ventilación constante de interiores, distancia interpersonal e higiene de manos. Evitar aglomeraciones, participar en la vacunación, colaborar con el rastreo de casos y cumplir con cuarentenas y aislamientos.

Bizi Berri IV. Planean ezarritako  
helburuak lortu ditugu

# Mila esker

euskal gizarte osoari erakutsitako  
konpromiso indibidual  
eta kolektiboagatik

Hemos alcanzado los objetivos  
establecidos en el Plan Bizi Berri IV

# Muchas gracias

a toda la sociedad vasca por  
el compromiso individual  
y colectivo demostrado

*Euskadi, auzolana, bien común*